

AIA • GETARIA • ORIO • ZARAUZ • ZUMAIA ■ KIROL ALDIZKARIA

sasoiari

2012ko ekaina

29. zenbakia

MENDI LASTERKETAK

Eskualde osora hedatuz • 8

ZARAUZKO SQUASH TALDEA

Hiru urtez pilota astintzen • 10

SAHARA MARATHON

Lasterketa bat baino gehiago • 16

Ane Galarraga

**“Gimnasioan topera jarduteak
berdin dio, gero jaurtitzen
ez badakizu” • 4**

Mailen igogailuan, batzuk gora eta besteak behera

Erredaktorea

Aritz Mutiozabal

Harremanetarako: 607 615 239

e-posta: sasoian@sasoian.info

Argazkiak

Azala: Maialen Andres (Oriamendi).

Sasoian 2.0: Gorka Rubio-Argazki

Press.

Beroketa ariketa: Urola Kostako

Hitza.

Berriketa: Ane Galarraga eta Urola

Kostako Hitza.

Kronika: Bittor Mutiozabal eta Urola

Kostako Hitza.

Taldeak: ZKE Squash Atala eta Urola

Kostako Hitza.

Kirolari gazteak: Zumaiaiko Txirrindulari

Elkartea, Joxean Elorza (Maria eta

Jose ikastetxea) eta Orokieta Herri

Eskola.

Hariari tiraketa: Antxon Agirrezabalaga,

Zumaiaiko Bela Elkartea eta Urola

Kostako Hitza.

Hariari tiraketa: Aitor Irigoien, Alaitz

Aierza eta Maria Izeta.

Diseinua

Roberto Gutierrez

Maketazioa

Saioa Perona

Edukien garapena

Urola Kostako Hedabideak EM

Inprimategia

Orvy EM

Argitaratzailea

SASOIAN aldizkaria **Urola Kostako**

Udal Elkarteak argitaratzen du.

Aldizkari honek Aia, Getaria, Orio,

Zarauz eta Zumaiaiko kirol albistek

jasotzen ditu.

www.sasoian.info



Urola Kostako Udal Elkarteak

kudeatzen du sasoian.info webgunea.

Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta

Zumaiaiko kirol albistek, agenda

nahiz emaitzak topatuko dituzu bertan.



DENBORALDI

bukaera mailaz igotzeko edo mantentzeko faseen txanda izaten da. Igogailua martxan jartzen den unea da, hain zuzen ere. Amena-bar Zarautz eskubaloitaldeak Ohorezko Zilar Mailan lehiatzeko txartela lortu du, esaterako. Espainiako Lehen Mailan bere multzoko txapeldun geratu ondoren, igoera faseko partidei ekin zion.

Ligaxka Zarautzen bertan jokatu zuten, apirila bukaeran eta, bi aste geroago, azken fasea Errenterian. Amenabarrek nahikoa zuen finalerdia irabaztearekin mailaz igotzeko, eta halaxe egin zuten, BM La Roca talde katalana mendean hartuta. Hori gutxi balitz, Ereintza taldearen aurkako final estua ere irabazi egin zuten. Lorpen garrantzitsua bada ere, oraindik eskubaloitaldeak ez du zehaztu maila berrian aritzeko plaza beteko duen; izan ere, ekonomikoki «gastu handia» eragiten du, eta kirol maila altuagoa du. Ekainaren 21era arte du erabakia hartzeko epea.

Edonola ere, ez da mailaz igotzea lortu duen kirol talde bakarra. Leihoak Zarautz saskibaloitaldearentzat ere bada zer ospa-



tua. Izan ere, EBA Espainiako Saskibaloit Amateurr Ligara igo da. Jordi Llopis entrenatzailearen gidaritzapean, hiru urtetan hiru igoera lortu dituzte jarraian. Eskubaloitkoen antzera, hauek ere datorren denboraldian goi mailan aritzeko aukera ekonomikoak aztertzen ari dira.

Horren zorionekoak izan ez direnak ere badira. Sinergia Zarautz errugbi taldeak urte bikaina osatu ondoren, igoera fasea jokatu zuten, baina ez du ametsa egia bihurtu. Futboleant, bestalde, Zarautzek hirugarren mailari agur esan behar izan dio, denboraldi eskasa jokatu eta gero. Zumaiaiko, aitzitik, Erregionalen Ohorezko Mailara igotzeko borrokan aritu da, eta, azkenean, Ostadarren aurkako bigarren partidaren ezin izan zuten garaipenik lortu.

Energiaz bete al zara udaberri honetarako?



Zer da udaberriko astenia?

Atzean geratu dira neguko egun hotzak eta euritsuak. Udaberriarekin batera eguraldiak hobetzera egin du, eta baldintza hobekoan entrenatzeko aukera ematen dio kirolariari, giro epelean eta eguzkitsuan. Zorigaitzeko, guztia ez da arrosa kolorea izaten, zorigaitzeko alergiek ez dute kupidarik izaten askorekin, eta hori gutxi balitz, udaberriko astenia deritzon sindromea pairatzen dute askok. Asaldura hori urtaro aldaketarekin agetzen da, eta hamar lagunetatik bati eragiten dio, kirolaria izan ala ez; kirolariarentzat, behintzat, egunero entrenamenduetarako oztopo bihurtzen da. Udaberriko asteniarekin, oro har, neke handia, ahulezia eta energia falta sentitzen du gizabanakoak.

Plasman betaendorfinak murrizten direlako agertzen da akidura. Aipatutako substantzia horrek parasinpatiko-sistemako prozesu batzuk erregulatzen ditu, eta aztoratzen denean neke eta ahuldade sentipena sortzen du. Bi motatakoa izan daiteke

udaberriko astenia: batak jatorri fisikoa du, eta gorputzaren ahultasun moduan adierazten da; besteak, aldiz, nerbio-jatorria du, eta jasaten dutenak bereziki tristetu edo atsekabetu egiten dira, eta jarduera mentalerako kontzentrazio falta izaten dute.

Udaberriko asteniak ez du tratamendu mediku berezirik behar. Ez da osasun-asaldura larria. Urtaro aldaketara egokitze falta da; hau da, temperatura, presio atmosferiko eta klima berrira ohitu arte irauten du. Sintomak egun batzuz luza daitezke, baita aste-etan ere, baina, pixkanaka-pixkanaka, organismoa moldatzen joan ahala, desagertzen joaten da. Urtero data hauetan neke sentipen hori izaten duzula? Orain badakizu zergatik den.

Udaberriko asteniaren sintomak

Tristura ulertezina, suminkortasuna, apetitu falta, memoria falta pixka bat, arteria-presio baxua, bizi-tonu baxua, sexu interes falta, buruko mina eta ondorez orokorra, ahulezia fisikoa eta nekea.

Aurre egiteko gomendioak

- Behar adina lo egin.
- Erlaxatzeko ariketak praktikatu.
- Ariketa fisikoa praktikatu.
- Elikagai energetikoak kontsumitu: fruitu-lehorrak, platanoa, datilak, lekak, pasta eta txokolatex, besteak beste.

Osagarri dietetikoak

- *Erregina-jalea*: estimulagarria, tonifikatzailea eta euforia eragilea da.
- *Polena edo lore-hautsa*: propietate orekatzaileak, bizigarriak eta energetikoak ditu.
- *Garagardo legamia*: B multzoko bitamina du; osagarri benetan interesgarria.
- *Oligoelementuak*: kobrea, fosforoa, burdina eta magnesioa lagungarriak dira.

Beste osagarri batzuk

Guarana, ginsenga, jengibre, eleuterokoa, maca, produktu estimulagarriak, kafea edo tea bezalako osagarriak oso lagungarriak dira udaberriko asteniari aurre egiteko, eta horren ahul ez sentitzeko.

Ane Galarraga

Atletismoko jaurtitzalea

«Jendeari errazagoa zaio korrika edo jauziak egitea, zerbait jaurtitzea baino»

Atletismoko jaurtiketa probatan **parte-hartzaile gutxi** aritzen da, eta emakumezkoen kategorian, **are gutxiago**. Horietako bat **Ane Galarraga** zumaiarra da, xabalina eta disko jaurtitzalea.



ASKOK AMORE ematen duten adinarekin hasi zen Ane Galarraga (Zumaia, 1982) atletismo federatuan. Hogei urteak pasata zituen, eta kirolen bat praktikatzeko aldera, xabalina probatu zuen. Modalitatea gustatu egin zitzaion, eta, harrezkero, Atletico San Sebastian taldearekin entrenatzen du Donostian astean bost egunez. Oro har, jaurtiketako proba ia guztiak praktikatu ditu, eta Gipuzkoako eta Euskadiko hainbat domina leporatu du. Hala ere, xabalina du maitean, nahiz eta belauneko lesio batek ez dion behar bezala jarduten uzten. Zuhurtziaz bada ere, azkenaldian, disko jaurtiketetan dabil buru-belarri: bere marka hobetzea du aurten helburua.

Atletismoa lasterketekin lotzen da askotan; iraupeneko eta abiadurako probekin, alegia. Jaurtiketak pixka bat oharkabean pasatzen direla uste al duzu?

Bai. Hemen inguruan nabarmentzen den jaurtitzailerik ez badago, jendeak ez dio kasu askorik egiten. Adibidez, pertiga jauzia nahikoa oharkabean pasatzen zen, baina Naroa Agirreren arrakastaren ondoren, jende ugari hasi zen modalitatea praktikatzeko. Bestalde, telebistan atletismoa ematen dutenean, emakume gizenak ikusten dira jaurtiketetan. Kanpora begira kirol zatarrak da, baina behin barneratzen zarenean, jaurtitzale guztiak ez direla horrelakoak konturatzen zara. Jakina,

gorputz handiko jaurtitzale zabalak daude, baina baita txikiak eta argalak ere, sekulako indarrarekin.

Horren antiestetikoa iruditzen al zaio kaleko jendeari?

Jaurtitzale gehienak gorputz handiak badira ere, oso bizkorak eta dinamikoak dira. Gure itxura fisikoak, ordea, ez du ongi erakusten egiten dugun entrenamendu lan gogorra. Egia da ez dugula gure pisua gehiegi zaintzen; muskulu-masa behar-beharrezkoa dugu, baina ez dugu zertan gantzik eduki behar. Azken finean, muskulu-masa azkar mugitzea da gakoa. Berdin dio 60 edo 200 kilo pisatzen duzun, baldin eta azkar mugitzeko gai bazara.

«Gure itxura fisikoak ez du ongi erakusten egiten dugun entrenamendu lana»

Gipuzkoan, esaterako, nolakoa da emakumezkoen parte-hartzea jaurtiketa probetan?

Lehiaketetan ez gara askorik elkartzen. Oro har, atletismoko proba guztietan beherakada nabarmena egon da, eta jaurtiketetan are handiagoa. Jendeari errazagoa zaio korrika edo jauziak egitea, zerbait jaurtitzea baino. Donostian, esaterako, oso jaurtitzaille gutxi entrenatzen dugu; bi gizonzkoak eta bi emakumezkoak, hain justu ere. Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan ere ez gara askoz gehiago izango. Jende gutxi dabil atlestimoan, gehienek taldeko kirolak egin nahi izaten baitituzte, futbola eta eskubaloia bezala. Lau kiloko pisu bola botatzea ez zaie batere erakargarria egiten, eta, agian, entrenatzaileek beraiek ere ez dakite jendea modalitate hauetara bideratzen.

Zer nolako maila dago xabalina jaurtiketetan?

Espainia mailan, Mercedes Chilla olinpikoak 64 metro botatzen ditu, eta, haren atzetik, Bilbon bizi den Iraida Garcia kubatarra dago, 60 metro inguru botatzen dituen. Gainerako guztiok hortik behera ibiltzen gara. Baten bat 50 metrora iristen da, baina besteak hortik behera gaude. Nire marka 36,60 metro da. Baina, duela bi urte eskuineko bealauna txikitu nuen futboleko jokatzen, eta, harrezkero, ez dut lortzen lehen bezala aritzerik. Beldurra hartu diot eta ezinean bezala jarduten naiz; batik bat, jaurtiketako las-

ANE GALARRAGA

ZUMAIA, 1982



terketan kolpera geratu behar dudanean. Horregatik, orain gehiago aritzen naiz diskoa jaurtitzen.

Lesioaren eraginez, modalitatez aldatu duzu?

Halako zerbait. Entrenatzaileak diskoa praktikatu behar nuela esaten zidan beti, baina niri xabalina gustatzen zitzaidanez, ez nion kasurik egiten. Orain, belauneko arazok medio, diskoa praktikatzen dut gehienbat. Xabalina jaurtiketako mugimenduak oso bortitzak dira. Izan ere, korrika abiadura hartzen dugu, eta, azken unean, kolpera gelditu behar izaten dugu, aurrean parera izango bagenu bezala. Jakina, inpaktu edo talka hori egiteak beldurra ematen dit.

Xabalina duzu gustukoan...

Probatu nuen lehena izan zen, eta ongi moldatzeaz gain, gustatu egin zitzaidan. Ikasteko prozesuan, diskoa ere probatu nuen, baina mugimendu birakaria oso arraroa egin zitzaidan. Baina, behin teknika hori menderatuta, pentsatu gabe ateratzen zaizu jaurtiketa, eta gehiago gozatzen duzu. Pisu jaurtiketa da gutxien gustatzen zaidana. Neguan lantzen dugu, pista estaliko denboraldian, denboraldiaurre gisa. Egia

esan, eguraldiak asko baldintzatzen du jaurtiketen entrenamendua.

Zein helburu jarri duzu aurtengo denboraldirako?

Diskoarekin 40 metrotara iritsi nahiko nuke; iaz, 37,70 metro jaurti nituen. Xabalina bigarren maila batean utziko dut, hasiera batean. Dena dela, ikusiko dugu zer gertatzen den. Agian, ezustekoa eman eta lehen bezain txukun botatzen hasiko naiz. Baina, lesioaren ondotik, konfiantza falta zait: teknikoki ez naiz gai lehen egiten nituen hainbat mugimendu egiteko. Entrenatzailearen arabera, edozer gauza egiten dut betiere belauna babesteko. Eta xabalinak ez du hegan egiten ez baduzu ongi botatzen. Behar bezala jaurti ezean, gauza arraroak egiten ditu airean, edo diagonalean joaten da.

Helburua beteko bazenu Espainiako Txapelketara sailkatzeko gutxieneko markatik gertu ibiliko al zinateke?

Ez. Espainiako Txapelketarako 47 metro inguru eskatzen dute, eta marka hori urruti samar dago oraindik. Nolanahi ere, urteko hamabi marka onenak sailkatzen dira, eta hor aukeraren bat egon liteke. Hala eta guztiz ere, gaua eta eguna bezala

ANE GALARRAGA xabalina jaurtitzen lehiaketa batean.

naizela dio nire entrenatzaileak; hau da, badirudi egun batean 50 metrotara iritsi naitekela, eta besteetan, berriz, ez naizela 25 metrotatik pasako. Hori gertatzen zait nire teknika ez dagoelako horren landua. Atletismoan berandu murgiltzeaz gain, duela bizpahiru urte hasi nintzen diskoa praktikatzen.

Baina dena da posible, ezta?

Egia esan, ilusioa egingo lidake Espainiako Txapelketan parte hartzeak. Adituek diotenez, jaurtitzaile baten gaina 33 urterekin izaten da. Beraz, oraindik badituzte garatzeko urte batzuk. Lesioek oztoporik jartzen ez badigute, jaurtitzaileok kirol bizitza luzea izan ohi dugu. Izan ere, gure artean neoprenoz estalitakorik ere bada; hau da, belauna, gerria, ukalondoa, esku-muturra eta abar babesgarriz estalita ibiltzen diren jaurtitzaileak daude. Nik sorbaldarako eta belaunerako erabiltzen dut, nahiz eta belaunak minik ez eman; pixka bat psikologikoa da.

Xabalinarekin hasi zinen; orain, diskoarekin zabilta; denboraldiaurrean pisua... Euskal barra ere probatu duzu, ezta?

Hala da. Hernaniko elkarte batek

txapelketa bat antolatzen du sanjoanetan. Nik Amaia Dublangekin eta Aitor Olaizolarekin entrenatzen dut, eta hauek urtero joaten zirenez, animatu egin nintzen. Herri kiroletako harri-zulatze proban erabiltzen duten barra jaurtitzeko dugu; emakumezkoenak 2 kilo pisatzen du eta gizonezkoenak, 3 kilo. Antzina zelaian botatzen zuten, baina guk xabalinaren pasilloan egiten dugu. Zuzenenean joan beharrean, disko jaurtiketako birak eman eta bukaeran barra botatzen dugu. Eskuetan xaboia ematen dugu, eta eskuetatik joaten utzi behar zaio erremintari. Pare bat urtetan Euskadiko Txapelketan ere txertatu zuten. Gainera, Ruta Quetzal-eko Miguel de la Cuadra Salcedo nafarrak munduko marka hautsi zuen bere garaian xabalinarekin, eta euskal barraren teknika erabili zuen horretarako. Nazioarteko Atletismo Federazioak, ordea, arriskutsutzat jo zuen teknika hau, eta balio gabetu egin zioten errekorra. Harrezkero, xabalinaren pasillotik zuzen joan behar dela arautu zuten.

Jaurtiketa guztiak egiteko mailua bakarrik falta zaizu?

Piraguismoa sorbaldako lesio bategatik utzi nuen, eta mailuak asko zigortzen du gorputzeko zonalde hori. Horregatik ez dut praktikatzeko. Elkarrean arteko atletismoko ligako jardunaldi batean jaurti nuen behin, mailu jaurtitzailerik ez geneukalako taldean. Iraulketak egin eta mailua joaten utzi nuen, besterik gabe. Egia esan, gainerako jaurtiketetan ere zertxobait molestutzen dit sorbaldak, baina gus-tuko tokian aldaparik ez da antzematen.

Luze jaurtitzeko indarra behar da, baina teknika egokia ere bai. Bietako zein da garrantzitsuagoa?

Teknikak indarrak baino gehiago balio du. Indarra ongi erabiltzen ez baldin badakizu, ez zoaz inora. Adibidez, taldean oso ongi aritzen den mailu jaurtitzailerik bat dugu, eta egun batean pisua jaurtitzeko saiatu zen, baina oso marka xumea lortu zuen. Ez du indarrak, baina sekulako teknika du mailuarekin. Azken finean, gimnasioan *matxakatzak* berdin dio, gero jaurtitzeko ez badakizu.

Atletismoa

Piraguatik jaurtiketetara

HASTAPENA. «18 urtera arte piraguismoa egiten nuen, baina sorbaldako lesio baten erruz, utzi egin behar izan nuen. Ondorengo urteetan zer egin ez nekiela ibili nintzen; adibidez, arraunean saiatu nintzen, aulki mugikorrean, baina ezin nuen. Aitak kirolen bat praktikatzera animatzen ninduen: herriko beste neska batek Donostian atlestimoa praktikatzeko zuela eta, harekin estadiora joateko eta jaurtiketen bat probatzeko esaten zidan. Halaxe egin nuen. Atletico San Sebastian taldeko arduradunarekin hitz egin nuen, eta jaurtiketetarako neskarik ez zutenez, esku zabalik hartu ninduten».



BERANTIARRA. «23 urterekin hasi nintzen atlestimoan. Oso berandu, egia esan. Ezagutzen ditudanak 14 urte ingururekin hasi ziren, beraz, pentsa! Oso ariketa teknikoak egin behar dira jaurtiketetan, eta gero eta beranduago hasi, orduan eta zailagoa da. Indarra betidanik izan dut, piraguismoa lantzen nuenetik, baina teknika entrenatzerakoan pilota bat jaurtitzeko esaten dizute hasieran. Pilota zuzen eta indartsu botatzen duzu, baina, ondoren, 2,15 metroko txabalina ematen dizute, eta ez duzu asmatzen. Jauziekin batera, jaurtiketak dira menderatzen nekezenak atletismoan».

MARKAK. Xabalina (600 gramo, eta 2,15 metro), 36,65 metro.

Diskoa (kilo bat), 37,70 metro.

Pisua (4 kilo), 10,97 metro.

Euskal barra (2 kilo), 23 metro.

«**Adituek diotenez, jaurtizaile baten gaina 33 urterekin da. Beraz, baditugaz garatzeko urte batzuk**»

Eta teknika ikastea nekeza al da, ala berehala menderatzen da?

Nahikoa zaila da, bai. Ariketa espezifikoa egiten ditugu horretarako, eta mila bider gauza berdina errepikatzea izaten da gakoa. Al-dian-aldian, gauzak probatzen joaten zara, entrenatzailearen gainbegiradapean, eta gaizki ateratzen zai-zuna behin eta berriz errepikatzen duzu, ongi atera arte. Mugimendu guztiak mekanikoki atera behar zaizkigu, eta ongi. Ohitura txarrak

hartzen baditugu, ondoren mekanikoki gaizki aterako zaizkigu. Beraz, ongi pentsatu behar izaten dugu non egin dugun oker eta nola egin behar dugun. Ariketak, egia esan, aspergarri samarrak bihurtzen dira. Baina, zenbat eta teknika zorrotzagoa, orduan eta urrutirago iritsiko zara.

Teknikak bateragarriak al dira jaurtiketa mota guztietan?

Sekuentzia bera da guztietan: lehenengo hankak mugitzen ditugu; ondoren, hankak blokeatu eta gerria sartzen dugu; eta, azkenik, besoa luzatzen dugu erreminta jaurtikiz. Exekutatzeko modua ezberdina bada ere, prozesua bera da jaurtiketa guztietan. Jaurti aurretik, bisualizatu egiten dugu zer eta nola egin behar dugun, mementoan xehetasun horietaz ez pentsatzeko. Ez dauka sekreturik, baina kanpotik ikusten dena baino konplexuagoa da.

Mendian gora dabilta



Eskualdeko ia udalerrri guztiek beren mendi lasterketa dute. Zerrendara gehitzen azkena Aiako I. Mendi Lasterketa izan da; joan den martxoaren 11n jokatu zen, 140 parte-hartzailerekin

MENDIAN LASTERKA ibiltzen direnak erotuta daudela diote. Osasunarentzat ez dela batere mesedegarria. Baita arriskutsua dela ere. Baina, horrenbeste jendek –eta urtetik urtero gero eta gehiagok– praktikatzen badu, horren aldrebesa ere ez da izango. Garbi dagoen bararra da mendiko lasterketen bolada dela. Urte gutxitan ikaragarri suspertu dira, parte-hartze kopurua nabarmen areagotuz, kasik *herrikoi* bihurtzeraino. Eskualdeko kirolzaleek ez dute oharkabea pasatzen utzi nahi izan aldartea, eta Getariak salbu, gainerako udalerrri guztiek dute beren *trail* propioa.

Zarauztik Pagoetaranzko igoera eta jaitsiera izan zen aitzindaria. Ondoren, Zumaiako itsaslabarrak gora eta behera lerrokatu zituzten. Iaz, oriotarrak animatu ziren, Kuarri eta inguruak ibilbide bihur-

tuz. Aia izan da zerrendara gehitzen azkena. Esamoldeak, ordea, azkenak aurrenak izango direla dio. Hori horrela den ala ez, hori beste eztabaida bat da. Aurtengo denboraldiko lehena izan dela, ordea, horretan ez dago zalantzarik.

Aiako Kirol Elkarteak antolatuta, joan den martxoaren 11n jokatu zuten Aiako I. Mendi Lasterketa. Herrian halako ekimenik egiten ez zela-eta, mendian aritzen den lagun talde batek inguruko mendietan proba egitea pentsatu zuen. Burua pixka bat nekatu ondoren, Pagoetako natur parkean bete-betea atondu zuten lasterketa; 557 metroko gorabehera positibo duen 8,2 kilometroko ibilbidea, alegia. Ia 140 lagun animatu ziren Aiako Mendi Lasterketan 8,2 kilometroko ibilbidea osatzera. Proba Hassan Ait Chaou villabonarrak irabazi zuen

gizonezkoetan; emakumezkoetan, berriz, etxekoa izan zen nagusi: Nerea Amilibia aiarra, alegia. Biek ala biek zailtasunik gabe jantzi zuten txapela, bigarren sailkatuari hiru minutu inguruko aldea aterata.

Apirileko lehen egunean, berriz, Oriokoa jokatu zuten, Orioko Herri Ikastolak antolatuta. Iaztik hona ibilbidea gogortu eta luzatu egin dute; izan ere, kilometro erdiko pendiza zorrotzari aurre egin behar izan zioten San Joan ermitatik gora, ibilbideko 15. kilometroan. Hala ere, horrek ez zituen parte-hartzaileak kildu, eta 290 lagun inguruk bete zuten erronka. Aurtengo irabazleak Ionut Zinca eta Ana Conde gasteztarrak izan ziren.

Maiatzaren 13an, beste behin, Pagoetako gurutzera igo ziren. Kasu honetan, ordea, Zarauzko Azken Portu auzotik irtenda. Ia 200 lagun

AIAKO MENDI LASTERKETA jokatu dute aurten lehen aldiz, eta 140 lagunek har dute parte.



animatu ziren 15 kilometroko ohiko ibilbidea osatzera, eta Ruben Lanz legazpiarra eta Aitziber Ibarbia zizurkildarra izan ziren bizkorrenak. Biek aise irabazi zuten proba, bigarren sailkatuei minutu batzutako aldea aterata. Hala ere, lasterketako errekorretik urruti geratu ziren. Emakumeen podiuma, berriz, eskualdeko korrikalariak osatu zuten: Leire Atxutegi zumaiarra bigarren izan zen, eta Itziar Izagirre zarauztarra, berriz, hirugarren.

Zumaiako Flysch Trail lasterketa, berriz, gogorragoa da. Zarauzkoaren bikoitza da kilometro kopuruari eta gorabehera positiboari dagokionez. Dena dela, ongi prestatzeko nahikoa denbora dago oraindik, uztaila bukaera aldean jokatu baitute itsaslabarretako korrikaldia. Oraindik ez zara animatu; zeren zain zaude?

Zarauzko Iraupeneko III. Ibilaldia

Zinema pilotalekua hango eta hemengo mendizalez bete zen maiatzeko lehen igandean, Zarauzko Iraupeneko III. Ibilaldiari ekiteko gogoz. Modu mailakatuan, 07:00etatik 07:15era bitartean, Zarauzko eta inguruetako mendietan barrena 45 kilometro osatu behar zuten irten ziren lehengo; eta ordubete geroago, berriz, 27,3 kilometroko ibilaldian izena eman zutenak. Indamendi, Santa Engrazia, Komisiolatza, Pagoetako gurutzea eta Agorregi bezalako parajeetatik ibili ondoren, parte-hartzaileak abiapuntura itzuli ziren. Jardunaldiak inolako eragozpenik ez zuen izan, eta eguraldia bera ere lagun izan zen ia egun osoan. Alde horretatik, Pagoeta Mendizale Elkarteko antolatzaileak pozik agertu ziren emaitzarekin.



Parte-hartzeari dagokionez, aurten 1000 lagunek eman zezaketen izena; duela bi urte 800 izan zen muga. Jende asko aritu da Tolosako XIV. Orduko Ibilaldia prestatzen, eta horretarako entrenamendua izan zedin handitu zuten antolatzaileek parte-hartze kopurua. Azkenean, 881 lagunek eman zuten izena, duela bi urteko ia kopuru berak. Ibilbide luzerako 539 kide animatu ziren, eta ibilbide txikirako 342 kide. «Jendea gustura geratu da, bai ibilbidearekin, bai antolakuntzarekin. Ibilbidea polita izateaz gain, ongi markatuta zegoela esan digute», adierazi zuen Pagoeta Mendizale Elkarteko kide eta ibilaldiko koordinatzaile Joseba Jauregik. Gainera, parte-hartzaileen fidelotasuna saritu zuten, eta jardunaldi amaieran diploma eta elastiko bana oparitu zizkieten.

Iraupeneko lehen ibilaldia Pagoeta elkartearen 50. urtemugaren harira antolatu zuten. Estreinaldiak arrakasta izan zuenez, errepikatzekotan geratu ziren antolatzaileak. «Urtero egitea gehiegixto iruditu zitzaigun, eta bi urteik behin antolatzea erabaki genuen. Beraz, 2014n ere aurrera aterako dugula espero dugu».

IV. Flysch Trail lasterketa

Eguna. Uztailak 22.

Irteera. Zumaiako Eusebio Gurrutxaga plazatik, 10:00etatik aurrera.

Izen-ematea. www.herrikrossa.com. Federatuek 20 euro eta ez federatuek 25 euro.

Ezaugarri teknikoak. 31,2 kilometroko luzera izango du ibilbideak, 1.500 metroko gorabehera positiboarekin.

Ibilbidea. Zumaiako eta Deba arteko eremuetan, itsaslabarren magalean: Elorriaga, Arantzeta, Mendata, Uzkinga, Errotaberri eta Algorri bezalako parajeetatik pasatuko dira.

Berrikuntza. FEDME Espainiako Federazioak antolatutako Espainiako Koparako puntugarria izango da aurtengo lasterketa.

Informazioa. www.zumaia.net eta www.herrikrossa.com webguneetan.



TALDEKA

Kaiola barruan jokatzen eta irakasten

Zarautz Kirol Elkarteko squash atala talde gaztea da, duela hiru urte lagun talde batek sortua. Egun txapelketak antolatzeaz gain, Euskal Ligan jokatzen dute eta haurrak entrenatzen dituzte.

Duela hiru urte sortu zuten squash atala Zarautz Kirol Elkarte-an. Aurretik ere talde gisa funtzionatzen bazuten ere, egitura ofizialik ez zuten herriko squash jokalariek.

«Koadrilatxo bat elkartzen ginen Aritzbataldeko pistetan squashean jokatzeko, eta lagunarteko txapelketa bat antolatzea bururatu zitzaigun. Gutariko batek webgunea sortu zuen, txapelketaren berri emateko, eta haren bitartez, Gipuzkoako eta Euskadiko squash federazioak Zarautzen hainbat lagun aritzen ginela konturatu ziren. Mugimendua zegoela ikusirik, federazioetatik elkarte bat sortzeko proposamena egin ziguten», gogora ekarri du ZKEko squash ataleko presidente Raul Parmok. Gaia aztertu eta esta-

tutuak sortu ondoren, Zarautz Kirol Elkarte-an inolako arazorik gabe onartu gintuzten.

Izatez, Urola Kostako squash talde bakarra da, eta Zarautzko jokalariez gain, oriotarrak eta getariarrak ere badira bertan. Elkartearen filosofia beste kirol aukera bati bide ematea da; hau da, squasha zonaldean sustatzea. Ez da gehiegi praktikatzen, eta, gainera, neska-mutil gehienek futbolerako edo taldeko kirol batean aritzeko joera dute. «Modalitateari bizia ematea da gure helburua», azaldu du Parmok.

SQUASH ATALEKO
kide Raul Parmok
eta Iñigo Agirre,
ezkerretik
eskuinera.



Squashak ez du misterio handirik, nahikoa erraza baita: frontoi txiki eta itxi batean jokatzen da, erraketekin eta pilota motelekin, eta helburua aurkariari tantoa egitea da. Taldekako kirolean ez bezala, squashe-rako nahikoa dira bi lagun. «Zaletasun bereko jendea ezagutzeko aukeraz aparte, zure antzeko lan ordutegia duen batekin partidak joka ditzakezu, inolako arazorik gabe».

Eskolartekoak batetik

Astero-astero eskolarteko saioak eskaintzen dizkie squash atalak, benjamin, alebin eta infantil mailako neska-mutilei. Entrenatzaile lanetan taldeko zuzendaritzako kide Iñigo Agirre oriotarra eta Raul Parmo bera aritzen dira, eta materiala taldeak jartzen die hasiberriei. Guztira, hiru saio egiten dituzte: asteartetan Orokieta Herri Eskolako hamar gaztetxorekin; asteazkenetan, Salvatore Mitxelena Ikastolako beste hamarrekin; eta ostiraletan, beste seirekin. Asteartetan eta asteazkenetan 18:00etatik 18:45era aritzen dira, eta ostiraletan, berriz, 17:15etik 18:00etara. Agirrek, bere aldetik, beste bi gaztetxo entrenatzen ditu Orion.

Eskola kiroleko entrenamendu saioekin batera, egun bateko txapelketa-jaialdi bat antolatzen dute. Urrian ekiten diote ikasturteari, eta aipatutako txapelketarekin bukatu; maiatza hasieran egin dute aurten. «Txapelketa azkarra izaten da; jokalaria bakoitzak bizpahiru partida jokatzen ditu egun berean. Ikasturte amaierako erakustaldi modukoa da, lagunartean jokatzen dena, gurasoen presentzian. Ikusteko oso polita izaten da», dio Agirrek. Amaieran, oroigarriak eta opariak banatzen dizkiete, eta, ondoren, askariarekin biribiltzen dute jardunaldia.

Azken finean, beste kirol aukera bat dutela erakutsi nahi diete neska-mutilei. «Hemen pilotarako zaletasun handia dago, baina jokatu ondoren, eskuko minez bukatzen dute. Squasha erraketarekin denez, gustura aritzen dira. Guztira, ia 30 gaztetxo trebatzen ari gara egun. Horrez

Zarautz Kirol Elkarteko squash atalak 35 bazkide inguru ditu, eta horietatik 6 lagun lehiatzen dira federatu mailan

gain, futbola edo eskubaloia bezalako kirolak praktikatzeko kostuak handiak izaten dira, eta, aitzitik, squasha dohainik da. Soilik, ZKEko bazkide izateko eskatzen diegu hauei. 17 euro dira urteko, baina ezin badute, ez ditugu behartzen. Berdin-berdin entrenatzen jarraitu ahal izango du gurekin. Azken finean, diru hori beraiekin gastatzeko erabiltzen dugu».

Helduak, bestetik

Une honetan, sei lagun daude federatuta ZKErekin, eta horiek Euskal Ligan jokatzen dute. Maila indibidualean, Euskal Herriko zirkuitua osatzen dute, ahal duten neurrian; azaroan Zarautzen jokatzen dute. Squash atalak ibilbide laburra duen arren, lorpen gogoangarriak eskuratu dituzte dagoeneko: Iñigo Agirrek, esaterako, Kopako finala irabazi zuen 2009an eta 2010ean, eta iaz laugarren sailkatu zen Ligan; Gabriel Piscunek, berriz, Kopako finala irabazi zuen iaz.



Bestalde, herri mailan zaletasuna sortze aldera, Zarauzko Squash Liga antolatzen dute otsailetik maiatza bitartean. Aurten, bosgarren aldiari heldu diote, 21 parte-hartzailerekin. Liga bi multzotan banatu dute, betiere jokalaria bakoitzaren mailaren arabera: batean, federatuak eta nolabaiteko maila duten jokalaria biltzen dituzte, eta bestean, noizean behin jokatzen dutenak. Horrekin batera, squash txapelketa azkarra antolatzen dute urrian, Koadrilen Eguneko astearekin bat eginik.

Hiru urte geroago

Hiru urte hauetako balorazioa oso ona dela diote taldeko kideek: «Neska-mutil ugari gerturatu dugu eta Euskal Ligan murgilduta gaude». Edonola ere, kiroldegiaren aldetik «babes handiagoa» izatea gustatuko litzaieke. «Askotan trabak jartzen dizkigute, entrenatzen ditugun haurrak bazkide diren ala ez galdetuz. Eskubaloikoekin ez dira horrela aritzen. Kiroldegian squasheko bi pista daude, eta Zarauzko Kirol Patronatuak bakarra uzten digu entrenatzeko. Hamar hurrekin aritzeko, ezinbestean bi pistak behar ditugu, eta bigarrena gure poltsikotik alokatu behar izaten dugu, dio Parmok.

Argi utzi nahi dute laguntza ematen dietela, txapelketak antolatzerakoan eta abar, baina entrenatzerakoan «malgutasun gehiagoa» nahiko lukete: «Ulertzen dugu ez direla garai onenak, baina guztion aldetik ez badugu ahaleginik egiten hurrek kirola egin dezaten, bada, jai dugu».

Euskal jolasekin gozatzuz!

Xiba ekimenaren barruan, euskal jolasen eta jokoen ekitaldia egin zuten Zumaian. Herriko bi ikastetxeetako -Zumaiako Herri Eskola eta Maria eta Joseko- ikasleez gain, Aizarnazabalgoek ere hartu zuten parte.

ZUMAIAKO Herri Eskolako eta Maria eta Jose Ikastetxeko, eta Aizarnazabalgo Basakaitz Eskolako Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako neska-mutilek Xiba ekimenean parte hartzeko aukera izan zuten, apirilaren erdialdean, Aste Santuko oporretatik bueltan. Egitasmoan euskal jatorriko hainbat jolas eta joko ezagutu zituzten Xibako begiraleen eskutik. Hasiera batean, Zumaiako Kantauri Plazan elkartu eta jolasak egitekoak ziren, baina eguraldi euritsua zela eta, Lubaki kiroldegian bertan antolatu zuten jardunaldia.

Hiru ikastetxetako ikasle guztiak oso gustura ibili ziren elkarrekin, ginkana moduko probetan parte hartuz: besteak beste, sokatira, sagar biltzea, zaku-karrera eta sokasaltoa bezalako jokoekin gozatu zuten. Tarte ezberdina bezain atsegina pasatzeaz gain, beren aisialdirako aukera berriak ikasi zituzten. Azken finean, usadiozko euskal kirol eta jolasen transmisioa bultzatzea du helburu egitasmoak. Bidez batez, gainera, ikasleen arteko harremanak sustatzeko eta egoki bideratzeko aukera paregabea bihurtu zen Xibaren jardunaldia.



DATUA

30

2012ko Olinpiar Jokoak gertakari hau ospatuko den hogeitamargarren aldia izango da. Erresuma Batuko hiriburuan ospatuko dira, Londresen, uztailaren 27tik abuztuaren 12ra. Hirugarrenez egingo dira Olinpiar Jokoak hiri horretan. Lehenengoz, 1908an egin zuten, eta, bigarrena, berriz, 1948an. 2012ko udako Olinpiar Jokoetan 26 kirol eta 38 diziplina izango dituzte, guztira. Paraolimpiar Jokoetan, aldiz, 20 kirol eta 21 disziplina izango dituzte. Paraolimpiar Jokoak geroago jokatuko dituzte, abuztuaren 29tik irailaren 9a bitartean.



BA AL DAKIZU...

Eskualdeko zenbat kirolarik hartuko duen parte bertan?

Eskualdeko hiru ordezkari lehiatuko dira Londresen. Ainhoa Murua triatleta zarautzarra hirugarren aldiz izango da Olinpiar Jokoetan. Oiana Blanco judoka oriotarrak, berriz, debuta egingo du, ekitaldirako gogor prestatu ondoren. Orio Arraunketa Elkarteko Edorta De Anta arraunlaria, bere aldetik, Paraolimpiar Jokoetan izango da.

Bigarren urtez jarraian, Gipuzkoako bizkorrenak

Zumaia

Taldekako Gipuzkoako txapelkun izan dira Zumaia Herri Eskolako bost lagun, taldekako modalitatean.

Zumaia Herri

Eskolako bost gaztetxok irabazi dute Gipuzkoako alebin mailako txirrindularitza txapelketa, taldekako modalitatean. Alebin mailan Eskola Kirola ekimenaren barruan jokatu ohi da txapelketa, eta bigarren urtez jarraian, Zumaia Herri Eskola nagusitu da. Hernanin jokatu zen taldekako lasterketa, erlojuaren kontra, eta Mattin Etxaniz, Julen Mujika, Xabat Gastañares, Ekain Saizabal eta Ioritz Manterolak osatutako multzoa izan zen bizkorrena. Jesus Mari Osaren eta Alberto Urangaren ardurapean entrenatzen dute txirrindulari gazte hauek, eta urteko lanaren emaitza izan da garaipen hau.



Orokietako ikasleak Realeko jokalariekin

Zarautz

Euskal Eskola Publikoaren jaiari babesa eman diote Realeko hainbat jokalarik.

Ekainaren 10ean

Zarautzen ospatuko duten Euskal Eskola Publikoaren jaiari babesa eman diote Realeko jokalariek. Orokietako ikasleak Zubietara joan ziren eta Realeko jokalaria Dani Estrada, Joseba Llorente, Asier Illarramendi eta Alberto de la Bellarekin argazkiak atera dituzte.



Zarautz Txirrindularitza

Pista barruan jaun eta jabe


PISTAKO ESPAINIAKO Txapelketatik hiru dominarekin itzuli zen Galdiano Eraikuntzak-Zarautz-tarra taldeko Xabier Gorrotxategi (Zarautz, 1994) txirrindulari juniorra. Euskadiko selekzioa ordezkatuz, erakustaldi bikaina eman zuen Galapagar (Madril, Espainia) herrian, Aste Santuan, eta, orain, uztailean Portugalen izango den Europako Txapelketa jokatu nahi du. Bien bitartean, errepedeko lasterketan dabil lehian.

Helburu finkorik ba al zenuen Espainiako Txapelketara joan zinenean?

Jazarpen proban domina bat eskuratzea zen nire helburua. Berdin zitzaidan zein koloretakoa; besterik gabe, podiumera igo nahi nuen. Ostegunean (apirilaren 5ean) sailkatze proba jokatu genuen, eta jardunaldiko bigarren denbora onena egin nuen. Lehen bi sailkatuek final nagusia jokatzen dutenez, zilarrezko domina bermatuta neukan. Hala ere, ostiraleko finalean ezin izan nuen lehen sailkatua mendean hartu, eta bigarren postuarekin konformatu behar izan nuen.

Helburua lortuta, beste bi dominak ezustean etorri al ziren?

Egia esan, bai. Puntuazio proban urrezko domina lortu nuen, eta madison proban (binakakoan) zilarrezkoa. Gainera, hautatzaileak jazarpeneko finalaren ondoren esan zidan puntuaziokoa jokatu nuela. Antza denez, gaizki ulertua izan genuen. Hobe horrela, inolako presiorik gabe lehiatu bainintzen. Lasterketa estua izan zen, eta esprintean helmugaratu ginen hiru lagun. Hiruok puntuazio berarekin bukatu bagenuen ere, ni izan nintzen helmugako lerroa zeharkatzen lehena.



Garaipenak sekulako ilusioa egin zidan. Aurreko bost postuetan ibiltzea eta lehiatzea zen asmoa, eta, egia esan, ezusteko atsegina izan zen.

Lehenengo dominak konfiantza handiagoa eman zizun, ezta?

Hala izan zen. Horrez gain, hasiera-hasieratik puntuaziokoa ariko nintzela esan izan balidate, agian, ez nintzen jazarpenekoan horren txukun lehiatuko. Nahiago izan dut horrela. Bestalde, jakin banekien binakako proba korrituko nuela. Pistako proba gogorrena da, eta Ander Alonso mutiloarra izan nuen bikotekide. Lan ona egitea zen gure helburua, eta halaxe ekin genion. Kataluniarrekin parez pare ibili ginen, proba kontrolatu nahian, baina, azkenean, murtziarrek irabazi zuten. Azken esprintari esker lortu genuen txapeldunorde izatea.

XABIER GORROTXATEGI
Espainiako txapelketan lortutako hiru dominekin eta garailearen maillotarekin.

Lorpen handiak dira, dudarik gabe.

Balentria handia egin arren, hasieran ez nuen asimilatu. Jende guztiak zoriondu egin nau, eta pixkanaka-pixkanaka barneratzen hasi naiz. Egia esan, domina baten bila joan eta hiru ekartzea ez da makala.

Euskal probetan ere nagusitasun hori erakusten al duzu?

Urtarrila bukaeran Gipuzkoako txapeldun izan nintzen, eta otsaila hasieran hirugarren sailkatu nintzen Euskadikoan. Hala ere, ez nuen uste horren ongi ariko nintzenik Espainiako Txapelketan. Egia esan, otsailean azterketetan nentzen, ezin izan nuen behar bezala entrenatu, eta ez nuen nire maila onena eman. Agian, Espainiara sasoi betean iritsi nintzen. Joan aurretik kontzentrazioak egin genituen txapelketa prestatzeko, eta paper txukuna egin genezakeela aurreikusten genuen.

Espainiako txapeldun izanda, nazioartekoan lehiatzeko aukera etorriko al da orain?

Espainiako Federaziotik ez didate oraindik ezer esan. Europako Txapelketa uztailean jokatu da Anadrian (Portugal), eta joan aurretik, Espainiako selekzioak kontzentrazio-deialdi bat egingo du. Espero dut bertan izan eta Europarako txartela lortzea.

Hitzordu hori kenduta, pistako denboraldia bukatu da. Horrek gorabeherarik eragingo al dizu entrenatzeko orduan?

Orain errepederako bakarrik entrenatzen dut. Baina, Espainiako selekzioarekin deituko banindute, astein saio batzuk belodromoan egiten hasiko nintzateke. Finean, bi modalitateak ditut gustuko.

Kirol AGENDA



Zarauzko XXVI. Triatloia

Triatloi proba klasikoa ekainaren 9an jokatuko dute, eta 650 parte-hartzaile izango ditu. Horien artean, iazko txapeldun Cat Morrison eta Clemente Alonso, Eneko Llanos, Mathias Hecht eta Lucie Zelemkova. Aurten, «betiko murrua» berreskuratuko dute bizikleta saiorko; Aiako aldapa pikoa, hain zuzen ere. Era berean, Su Ta Gar taldearen *Norbera bere ametsen jabe* kantuarren izenburua aukeratu dute lelo gisa. Proba 14:00etan hasiko da, emakumeekin; eta 14:15ean gizonen ekingo diote.

Traineru denboraldia

San Miguel Liga: Ekainaren 30ean hasiko da, Petronor XIX. Banderarekin, Zierbenan. Aurten, Zumaia izango da eskualdeko ordezkari bakarra.

Euskotren Liga: Uztailaren 7an eta 8an kanporaketa jokatuko dute, ligan nor ariko diren erabakitzeko. Getaria-Tolosak txartela badu, iazko txapelduna delako. Zumaia eta Oriok kanporaketa gainditu beharko dute.

KAE 1 Liga: Ekainaren 24an hasiko da, Elantxobeko XXV. Banderarekin. Getaria, Orio eta Zarautz lehituko dira aurtengo denboraldian.

KAE 2 Liga: Ekainaren 23an hasiko da, Gozongo VIII. Banderarekin, Luancon (Asturias, Espainia). Orio B ariko da maila honetan.



Antxon Agirrezabalaga, punteria ongi zorroztua

Antxon Agirrezabalaga plater tiratzaile aiarra Euskadiko Plater Tiraketa Kopako txapeldun izan da maiatzean, eta Espainiako Txapelketan txapeldunorde, taldeka egindako saioan. Ekainean Euskadiko Txapelketa jokatu du, Irunen, eta orduan ehun plater puskatu beharko ditu.

Zumaia Bela Akelarre nagusi



Gipuzkoako Bela Txapelketa eta Zumaia Udala Saria irabazi zituen Getariako Akelarre ontziak. Zumaia Bela Elkarteko *Phoenix* ontziarekin eta Bilboko Abrako Itsas-klubeko *Symphony* ontziarekin dema estua izan bazuen ere, Mauricio Guibert eta bere eskifaia izan ziren nagusi. IRC 2 mailan Getariako *Ai Ama* belaontziak irabazi zuen, eta Open mailan, berriz, Zumaia *Potolito*-k.

ERRONKA

Elkartasunaren korrikaldia

www.sasoián.info



Alaitz Aiertza, Maria Izeta eta Aitor Irigoien hirukoteak esperientzia ahaztezina bizi izan zuten Sahara Marathon-en; sahararren kanpamenduetan astebate pasatzeaz gain, lasterketa aritu ziren desertuaren erdian.

«**Batzuek kirol** ikuspegitik hartzen dute bidaia eta proba bera, eta denborak kontuan hartzen dituzte. Guretzat hori baino gehiago zen; korrika egiteaz aparte, hango familiekin egon eta haien bizimodua ezagutu nahi genituen». Eskualdeko hiru lagunek –Aitor Irigoien getariarrak eta Maria Izeta eta Alaitz Aiertza zarauztarrek– Sahara Marathon egistamoan hartu dute parte, eta hasiera-hasieratik argi zuten korrika egiteko aitzakian sahararren errealitatea eta haien errefuxiatu-guneak bertatik bertara ezagutu nahi zituztela.

Errefuxiatu-guneak Aljeriak utzitako basamortu zati batean daude. Guztira, bost kanpamendu dira: El Aaiun, Smara, 27 de febrero, Dagma eta Auserd. Kanpamendu hauek saharar herriko probintzien izenak dituzte; hau da, beraien lurak berreskuratu eta itzultzen direnean, bakoitzak jakin dezan nondik datozen. Korrikalariak Smaran egin zuten bat,

MARIA ETA ALAITZ goiko argazkian, Ikurriñarekin; behekoan, Aitor korrika, erdian, zuriz jantzita.



Sahara Marathongo helmugan. Aste bateko egonaldia egin zuten bertan, otsailaren 25etik martxoaren 2ra, hango familien haimatan. Euskal Herriatik 25 lagun joan ziren, eta horien artean aipatutako hirukotea.

Aiertzaren dantzako lagun baten bitartez izan zuten zarauztarrek egitasmoaren berri: «Harrezkero, interesatzen hasi ginen, baita gure hurrengo bidaia hara egin genezakeela pentsatzen ere». Irigoienek, berriz, duela urte batzuk Behobia-Donostia lasterketako helmugan jasotako eskuorria topatu zuen, eta gogobeteta

erronkari heldu zion: «Kuriostatea nuen desertuan korrika egitea zer izango zen jakiteko».

Lasterketak lau modalitate ditu: maratokia (42 kilometro), maratoi erdia (21 kilometro), 10 kilometro eta 5 kilometro. Laurak otsailaren 27an jokatu zituzten; proba bakoitzak bere abiapuntua eta ordutegia zuen, nahiz eta guztiak helmuga toki berean izan. Zarauzko Emakume Korrikalarien taldeko kide dira Aiertza eta Izeta, eta 10 kilometrokoarekin animatu ziren. «Erronka polita izan zen distantzia hori desertuan egin ahal izatea», dio Aiertzak: «Bero egiten zuen arren, gustura geratu ginen egindakoarekin. Helburua bukatzea zen, eta halaxe egin genuen, ibilbide osoa korrika osatuz».

Irigoienek, aldiz, maratoi erdia korritu zuen. Bere hitzetan: «Lurra harritsua zen, eta hondar-guneak eta dunak ere izan genituen. Beste planeta batean egotea bezala zen. Ingurura begiratuta, ez genuen erreferentziarik: hondarra, desertua eta zerua besterik ez zegoen. Land Rover autoek markaturiko bi-deak jarraitzen genituen, eta, tartean, makilak edo harrizko tontortxoak ikusten genituen gida moduan». Esperientzia polita bezain ahaztezina bizitzeko aukera izan dute, eta errepikatze gogoz geratu direla aitortu dute.

Aurtengoa, Sahara Marathon antolatutako hamabigarren aldian izan da, eta korrikaldia erabat eskuzabala den herrialde bati elkartasuna adierazteko kirol ekimena baino gehiago da. «Basamortuaren erdian daude, eta kanpoko laguntzari esker bizi dira», aditzera eman du Izetak. «Orduan, horrelako egitasmoek beraien egoera ezagutzera emateko edo zabaltzeko balio dute».